

HERNANI / Liburuak aztertzen, udazkenean ere

Literatur Solasaldiak urriaren 13an hasiko dira, Paul Austerren ‘La invención de la soledad’-ekin.

Udal Liburutegiak antolatuta, eta irakurtzeko gogoia herritarrei piztu nahian, Literatur Solasaldiak hasiko dira, urriaren 13an, eta abenduaren 15ean bukatu. Hiru nobela komentatuko dira euskeraz, eta hiru erderaz, Luis Cachok eta Ane Mayozen bideratuta.

Urrian, bi liburu

Urritik abendura, sei libururi buruz hitz egingo dute Udal Liburutegian, 19:30etatik 21:00etara. Urrian bi liburu komentatuko dira, bat euskeraz eta bat erderaz. Urriaren 13an izango da lehenengoa, Paul Austerren La invención de la soledad. Urriaren 19an, Pako Aristiren Kcappo liburuaren gaineran ariko dira. Azaroan eta abenduan ere bina liburu izango dituzte berriketarako. Azaroaren 10ean, John Lanchesterren Novela familiar aztertuko da. Azaroaren 16an, R. Carverren Zertaz ari garen maitasunaz ari garenean. Abenduaren 14an, Xabier Montoiaren Non dago Stalin?. Eta abenduaren 15ean, Marcos Giralten Tiempo de vida. Liburuak aurrez irakurri behar dira, gero komentatzeko. Informazio gehiago:

www.hernaniliburutegia.net